



Bilbao Orkestra  
Sinfonikoa


DENBORALDIA 24 TEMPORADA  
25

urriak 17-18 octubre

# El caballero de la rosa

Sergei Dogadin, biolina/violín

Luis Toro Araya, zuzendaria/director

 Hastapeneko abonua  
Abono de Iniciación



Palacio Euskalduna Jauregia



osteguna | jueves 19:30 h  
ostirala | viernes 19:30 h




Desde 14,42 €-tik aurrera  
Gaztea (<30):  
desde 5,41 €-tik aurrera

Taquilla Euskaldunako lehiatila  
[www.bilbaorquestra.eus](http://www.bilbaorquestra.eus)



Bizkaia

Bilbao





**Sergei Dogadin, biolina / violín**  
**Luis Toro, zuzendaria / director**

## I

D. SHOSTAKOVICH  
(1906-1975)

1. kontzertua biolin eta orkestrarako la minorrean Op. 77  
Concerto nº 1 para violín y orquesta en la menor Op. 77

- I. Nocturne
- II. Scherzo
- III. Passacaglia
- IV. Burlesca

**Sergei Dogadin, biolina / violín**

## II

A. LENG  
(1884-1974)

Alsinoren heriotza\*  
La muerte de Alsino\*

R. STRAUSS  
(1864 - 1949)

Der Rosenkavalier, Suitea / Suite Op. 59

\* Lehen aldiz BOSen eskutik / Primera vez por la BOS

Iraup. / Dur: 110' (g.g.b. / aprox.)



## Egitarauaren oharra

### Emozioen ostadarra

Gaur arratsaldeko egitarauak XX. mendearen lehen erdian idatzitako hiru lan entzunaldi proposatzen digu, eta horrek adierazten du denboran duten hurbiltasunak ez duela inolaz ere antzekotasun estilistikoak bermatzen. Aitzitik, guztiz kontrakoa adierazi behar dugu. Argi dagoena da hiru konposizioetan asmo adierazkor argia dagoela -desberdina, hori bai- asmo estetiko hagitz garrantzitsutik haratago. Presta gaitezen, hainbestez, ibilbide emozional luzea urratzeko, kolorez beteriko orkestra baten eskutik.

Dmitri Dmitrievitx Xostakovitx (San Petersburgo, 1906-Mosku, 1975) Romanovtarren Errusia inperialen jaio zen, tsarraren Neguko Jauregiaren aurreko sarraskia gertatu baino hilabete batzuk lehenago. Txikitatik sinetsi zuen Errusiako Iraultzaren ideietan, ideia horien perbertsioa ikusi eta pairatu zuen arte. Bere etxeko giro melomanoak -bere ama pianista profesionala zen-, bere formazioak eta, batez ere, bere talentu apartak, XX. mendeko musikari bikain eta polifazetikoenetako bat bilakarako zuten. Hala ere, ideologia komunistaren ustelkeriak, hainbeste artista eta pentsalari aurretik eraman zituenak, Xostakovitxen izena ere desohorearen lokatzean murgilarazi zuen. Bere musika programetatik kendu eta laidoztatu egin zuten analista ezjakinek, eta bera ere irakaskuntzatik at utzi zuten, linbo nazkagarri eta isiltasun irrazional batera kondenatuz.

Musika izan zen, hain zuzen ere, Xostakovitxentzat bere pentsamenduarien baitan metatuz joan ziren beldur, susmo eta ziurtasun ugariei bide emateko kratera. Bere arima sentiberak errealitate temati eta anker baten arriskua atzemanen joan zen. Bere sinesmen nahigabetuak bere ideietatik erauzteko baliatu zuen indarkeria erupzioan dagoen sumendi erraldoi baten elikagai izan zen.

La minorreko biolin eta orkestrarako 1. kontzertua obra pertsonal, sakon eta sentitiboa da, 1947 eta 1948 bitartean idatzia; gainera, estreinatu behar ez zelako konbentzimendurekin idatzi zuen Xostakovitxek. Izan ere, 1955eko urriaren 29ra arte itxaron behar izan zuen (Bigarren Mundu Gerrako azken preso alemaniar askatu eta egun batzuetara) Leningradoko Orkestra Filarmonikoarekin estreintzeko, Evgeny Mravinskyren zuzendaritzapean. David Oistrakh biolin jotzaile paregabea, partituraren inspiratzailea eta Xostakovitxen lagun leial eta maitatua, bakarlari jardun zuen orduko hartan.

Kontzertuak biolinaren ezaugarri nabarmenetako bi aztertzen ditu: bere izaera kantaria eta hark eskaintzen dituen aukera tekniko adierazkorak. Baina XX. mendeko orkestra-konpositore garrantzitsuenetako baten sinfonismoaren alderik onena ere eskaintzen digu. Izan ere, orkestra kolore-paleta zabal bat izan zen Xostakovitxentzat, emoziorik bizienak eta sentimendurik leunenak adierazte aldera. Bere orkestrazio indartsu eta ñabartuak erusiarrek mosaikoeikiko duten antzinako gustua islatzen du, non xehetasun ezkutuenean sotiltasuna multzoaren handitasuna bezain baliotsua den. Biek hunkitzen eta harritzen gaituzte.

Kontzertu honetan orkestrazioa zabala da, baina, modu originalean, tronpetak eta tronboien distirari uko egiten dio, eta entzulea gogoeta oniriko batean murgilarazten du Nocturnoaren bitartez. Ondorik, Scherzoaren kitzikapena dator, eta bertatik sortzen dira, muturreko instrumentu-erregistroen eta orkestra-lerro bereizien artean, melodia-jauzi handiegia eta etengabe errepikatzen diren eskema melodiko-erritmikoak; horien artean, musikagilearen inzialak jasotzen dituen motibo musikala nabarmetzen da: DSCH edo, gauza bera dena: re, mi bemol, do, si. Oistrakh uste zuen biratze zorabiagarri eta geldiezin horretan "deabruzko eta nahaspilazko zerbait" zegoela. Baina giroa berriro

## Notas al programa

### Un arco iris de emociones

El programa de esta tarde nos propone la escucha de tres obras escritas en la primera mitad del siglo XX, lo que es un indicador indiscutible de que su proximidad en el tiempo no garantiza en absoluto la semejanza estilística. Más bien, todo lo contrario. Lo que sí resulta evidente es que en las tres composiciones hay una clara intención expresiva -distinta, eso sí- más allá del importantísimo propósito estético. Preparémonos, pues, para un extenso recorrido emocional de la mano de una orquesta plena de colores.

Dmitri Shostakovich (San Petersburgo, 1906-Moscú, 1975) había nacido en la Rusia imperial de los Romanov solo unos meses antes de la masacre ciudadana ante el Palacio de Invierno del zar. Había creído desde niño en las ideas de la Revolución Rusa hasta que vio -y padeció- la perversión de esas ideas. El ambiente melomano de su casa -su madre era pianista profesional-, su formación y, sobre todo, su excepcional talento, hicieron de él uno de los músicos más sobresalientes y polifacéticos del siglo XX. Sin embargo, la corrupción de la ideología comunista que se llevó por delante a tantos artistas y pensadores arrastró también el nombre de Shostakovich por el lodazal de la deshonra. Su música fue retirada de los programas e injuriada por analistas ignorantes y él mismo fue apartado de la docencia y condenado a un limbo desquiciante y a un silencio irracional.

La música fue para Shostakovich el cráter por el que dar salida a los múltiples temores, sospechas y certezas que habían ido amalgamándose en el interior de su pensamiento. Su alma sensible había ido captando el peligro de una realidad tozuda y cruel. La violencia con que sus convicciones contrariadas fueron arrancadas de su ideario fueron el alimento de un gigantesco volcán en erupción.

El Concierto nº1 para violín y orquesta en la menor es una obra personal, profunda y sensitiva, escrita entre 1947 y 1948 con el convencimiento de que no iba a ser estrenada. De hecho, tuvo que esperar al 29 de octubre de 1955 -unos días después de la liberación de los últimos prisioneros alemanes de la Segunda Guerra Mundial- para que Evgeny Mravinsky lo dirigiera al frente de la Orquesta Filarmonica de Leningrado. El irrepitible violinista David Oistrakh, inspirador de la partitura y amigo fiel y querido de Shostakovich, fue el solista en aquella ocasión.

El concierto explora dos de los atributos más destacados del violín: su naturaleza cantora y sus posibilidades técnicas y expresivas. Pero nos brinda también el mejor del sinfonismo de uno de los principales compositores orquestales del siglo XX. Y es que la orquesta fue para Shostakovich una extensa paleta de colores con la que expresar las emociones más intensas y los más leves sentimientos. Su orquestación poderosa y matizada refleja el ancestral gusto ruso por los mosaicos, donde tan valiosa como la magnitud del conjunto es la sutileza de los más secretos detalles. Ambas nos impresionan y nos conmueven.

En este concierto la orquestación es extensa pero, de forma original, renuncia al brillo de trompetas y trombones, iniciando al oyente en una onírica meditación a través del Nocturno. Llega después la excitación del Scherzo del que brotan, entre registros instrumentales extremos y líneas orquestales separadas, exagerados saltos en la melodía y esquemas melódico-rítmicos incesantemente repetidos, destacando entre ellos el motivo musical que recoge las iniciales del compositor: DSCH o, lo que es lo mismo: re, mi bemol, do, si. Oistrakh opinaba que en este girar vertiginoso e imparable había "algo de demoniaco y de espinoso". Pero la atmósfera cambia de



aldatzen da Passacaglian, eta halako saihestezintasun-kutsu batez bustitzen da. Oraingoan, gaia erregistro larrian aurkezten da eta koral moduko bigarren ideia batekin leuntzen da; horrek musika progresio geldiezinan murgiltzea eragiten du. Bakarlariaren melodiak edertasun iluna hartzen du, eta kadentzia luze bat sortzen da, orkestrak Burlesque "atakatzeko" duenean eteten dena. Amaiera horretan, energia besaulki-patorantz bultzatzen da, trepak-aren berezko indarrarekin eta abiadurarekin. Trepak-a errusiar dantza herrikoa da, bere indar oso bor-borka askatzen duena, tensio handiz eta zalaparta saihesten ez duen indarrez eta umorez.

Musikak arnasa hartzeko eta esan ezin zuena hitzez kontatzeko aukera eman zion Xostakovitxi, bere arima bere pentagrametan modu berezian sublimatuz; izan ere, musikak bere beldur, desira eta ideien kadentziaz taupaka jarduten du.

Alfonso Leng txiletarra (Santiago, 1884-Santiago, 1974) musikagile autodidakta izan zen, bizitza profesionala odontologiari eskaini bazion ere; Txileko musikaren eta konposizioaren bultzatzaile handienetakotzat jotzen da, XX. mendeko lehen hamarkadetan musikak garrantzi handia zuen Txileko hiriburuko foro kultural nagusietan parte hartu baitzuen.

'Alsinoren heriotza' poema sinfonikoa da, eta Pedro Prado herrikidearen izen bereko eleberria du abiapuntu. Bost zatitan banatuta dago, eta narrazioak protagonistaren, Ikaro moduko pertsonaia baten bizipenetan nagusi den egoera bat aztertzen du. Lehenengo atala erorikoaren topikoan zentratuta dago; bigarrena errebelazioan eta hegaldian; hirugarrena abenturaren, ekaitzaren eta bakardadearen ingurukoa da; laugarrenean, Alsino izuaren, presondegiaren, alferrikako maitasunaren eta alderrai-bizitzaren biktima da. Itsutasuna, abandonua eta sua dira nagusi azken sekzioan. Egitura literario horrek gidatzen du Lengen poema sinfonikoaren egitura formal, Alsinok erabiltzen dituen gogo-aldarteak gogora ekartzen dituen hizkuntza espresionistan oinarrituta. Tonalitateen transformazioak, testurak eta orkestrazioa dira Lengek egoera psikologiko horiek deskribatzeko erabiltzen dituen tresnak, programa-peripezia bazter utzita. Eta hegaldiaren oldarraldiez eta Alsinoren erorketaz ari bagara, oroitzapen mingarri eta min fisiko eta psikoz josia dagoen landa-gizonen logika latz eta ezjakinaren eta grabitate ugarien gainetik aske eta garaile altxatzeko irrikaren arteko dikotomia islatzeko da. Izan ere, dikotomia hori berarengan gauzatzen da. Kontraesan horri aurre egiteko, Lengek musikarekin deskribatzen du pertsonaiari gertatzen zaionaren handitasun espiritual, Pradoren kontakizunean islatzen diren pasarte ezberdinetan arreta jartzeke. "Hegan egitea beti izan da niretzat gozamen mingarria!" dio Alsinok poema sinfoniko honetan (bere generoko lehena Txileko literatura musikalean). Poema sinfoniko hau 1922ko maiatzaren 20an estreinatua zuen Txileko Orkestra Sinfonikoak, Armando Carvajalen zuzendaritzapean.

Richard Strauss (Munich, 1864 – Garmisch-Bavaria, 1949) tronpa-instrumentista bertutetsu baten semea zen, eta Bavariako gorteko orkestran aritzen zen lanean. Klasisismo musikalean hezi zuen semea, wagneriar korrante boteretsutik aldentzen saiatuz. Baina konpositore gaztea diskoloa izan zen -edozein neraberi dagokion bezala- eta ez zituen aitaren aginduak jarraitu. Bere karreraren hasieratik operan interesatu zen, eta wagneriar estiloko ahots-obrak idazten hasi zen; geroago, berehala erreparatu zion espresionismo eta psikologiaz blaitutako testuinguru alemaniar berriari. 1905ean Salome lan musikala lotsagabea estreinatua zuen, Oscar Wilderen izen bereko dramatik abiatuta. 1909an, Salomeren lengoia harmonikoki aurreratua are gehiago bihurtu zen, Elektra bere hurrengo opera sortuz, Hugo von Hofmannsthalen drama

nuevo en la Passacaglia y se impregna de un cierto halo de inevitabilidad. El tema ahora es presentado en el registro grave y se suaviza con una segunda idea a modo de coral que hace discurrir la música en imparable progresión. La melodía del solista adquiere una oscura belleza, derivando en una larga cadencia que se interrumpe cuando la orquesta attacca la Burlesque. En este final la energía es propulsada hacia el patio de butacas con el vigor y la velocidad características del trepak, danza popular rusa que abre la espita a tanta tensión contenida, soltándola a borbotones con una fuerza y un humor que no eluden lo estrepitoso.

La música permitió a Shostakovich respirar y contar lo que no podía decir con palabras, sublimando de manera singular su alma en sus pentagramas, que laten con la cadencia de sus miedos, sus deseos y sus ideas.

El chileno Alfonso Leng (Santiago, 1884-Santiago, 1974) fue un compositor prácticamente autodidacta que, pese a dedicar su vida profesional a la odontología, es considerado uno de los grandes impulsores de la música y la composición chilenas ya que, en las primeras décadas del siglo XX, participó en los principales foros culturales de la capital de Chile en los que la música tenía un papel destacado.

Valorada por muchos como una obra fundacional del sinfonismo chileno La muerte de Alsino es un poema sinfónico que tiene como punto de partida la novela homónima de su compatriota Pedro Prado. Articulada en cinco partes, la narración explora en cada una de ellas una situación predominante en las vivencias del protagonista, una especie de Ícaro. La primera sección está centrada en el tópico de la caída; la segunda en la revelación y el vuelo; la tercera parte gira en torno a la aventura, la tempestad y la soledad; en la cuarta, Alsino es víctima del pánico, la prisión, el amor infructuoso y el vagabundeo. La ceguera, el abandono y el fuego dominan la sección final. Esta estructura literaria es la que guía el armazón formal del poema sinfónico de Leng, basado en un lenguaje expresionista que evoca los distintos estados anímicos por los que transita Alsino. Las transformaciones en las tonalidades, las texturas y la orquestación son las herramientas con las que Leng pretende la descripción de estos estados psicológicos, más que la peripezia programática. Y si se alude a los embates del vuelo y la caída de Alsino es para reflejar la dicotomía - encarnada en él- entre "la lógica ruda e ignorante de los hombres rústicos, plagada de recuerdos dolorosos y dolor físico y psíquico y el anhelo de alzarse libre y triunfador sobre numerosas gravedades." Leng afronta esta contradicción describiendo con la música la magnitud espiritual de lo que acontece al personaje, sin detenerse en los diferentes episodios narrados en el relato de Prado. "¡Volar siempre fue para mí un goce doloroso!" exclama Alsino en este poema sinfónico -el primero de su género en la literatura musical chilena-, estrenado el 20 de mayo de 1922 por la Orquesta Sinfónica de Chile, dirigida por Armando Carvajal.

Richard Strauss (Munich, 1864 – Garmisch-Baviera, 1949) era hijo de un virtuoso instrumentista de trompa que ejercía su profesión en la orquesta de la corte de Baviera y que educó a su hijo bajo las consignas del clasicismo musical, procurando alejarle de la poderosa corriente wagneriana. Pero el joven compositor fue discípulo -como corresponde a cualquier adolescente que se precie- y no siguió las indicaciones paternales. Interesado desde el principio de su carrera en la ópera, empezó a escribir obras vocales en la estela wagneriana, para fijarse enseguida en el nuevo contexto alemán empapado de expresionismo y psicología. En 1905 estrenó la irreverente Salomé a partir del drama homónimo de Oscar Wilde. En 1909, el lenguaje armónicamente avanzado de Salomé se retorció aún más dando lugar a su siguiente



batean oinarritua. Musikaren mundua eskandalizatu ondorik, Straussen idazkera baretu egin zen. Gogora ekarri ote zituen konpositoreak aitaren aspaldiko aholkuak? Estilo berri horrek Arrosaren zaldunaren edertasun arin eta distiratsuan hartu zuen forma. Dresdengo Königliches Opernhaus-en, 1911ko urtarrilaren 26an, Ernst von Schuch-en zuzendaritzapean estreinatutako hiru ekitaldiko opera da. Obra maitasunaren alegatu musikala da. Baina, era berean, denbora gu guztiontzat zein setatsu igarotzen den gogorarazten digu. Horiek dira, seguru asko, libretoaren bi gai nagusiak, baina giza grinak ere nabarmentzen dira, hala nola harrokeria eta handinahia, eta bertute bakan eta baliotsuak, hala nola uko egitea eta eskuzabaltasuna. Hori guztia endredoizko komedia gogoeta transzendentalarekin modu sinesgarri eta miresgarrian lotzen duen trama batean ehunduta dago. Lotura hori libretistaren talentu mugagabeari esker bakarrik izan zen posible. Libretista hori Hugo von Hofmannsthal izan zen. Dramaturgo, poeta eta saiogile viener honek –“perfekzio goiztiararen mirari handienetako bat”, Stefan Zweigen iritzian– Straussek kolaboratu zuen pare bat urte lehenago Elektra-n; ondorik, Ariadne Naxosen, Itzalik gabeko emakumea eta Arabella obretan ere kolaboratu zuen. Zweigek berak miretsirik aitortzen zuen ez ziotela poeta garaikide bakar bati ere entzun “Hofmannsthalenak bezain bertso perfektuak, plastikotasun bikaineoak, musikaz blaituak”. Ziur aski, Richard Strauss ere ezagarrri baliotsu horiez jabetu zen; hain zuzen ere, idazlearekin izandako lankidetzaz biziki baloratu zuen, halako moldez non honako hau ere adierazi baitzuen: “elkarrekin lan egiteko jaio gara”.

Hamarkada batzuk geroago –lehen bertsioa 1934koa da eta geroago 1944koa– operan agertzen diren bals batzuk Suite batean bildu ziren, non sotiltasun eritmitikoa, kolore harmonikoa, tinbreak eta bertuosismo instrumentala, jatorritik intriga sozialaren eta maitasunaren aldarrikapenaren artean kulunkatu zuen trama baten zerbitzura jartzen diren, orkestrazio hutsa ez den hamazortzigarren gizaldiko testuinguru batean. Baina libretistaren asmoa, bere garaian, ekintza Maria Teresaren Viena hirian kokatzea izan zen, bals sail batekin girotuta. Bals horiek nagitasun atsegingarri batekin hasten dira, eta apoteosi neurrigabe batekin amaitzen; zentzu horretan, paradoxa bat gertatzen da, artistaren keinu ironikoa izaki. Vienako balsa ez zen existitzen orduan, XIX. mendetik aurrera nazioartean ospetsu egin zen moduan. Nolanahi ere, edertasunaren aurrean egoteak gure belarrietatik dakarren atseginak anakronismo oro barkatzen du. Horrezaz gainera, Richard Straussek Viena ez ezik, bere abizen bera daraman musikari austriarra ere omendu zuen partituran. Horrela, suite honek Johann Strauss semearekin zuen zorra onartu zuen, Vienako jenio aberatsarekin zuen zorra alegia. Hura gabe, argiro esan zenez, ezingo zituzkeen Arrosaren Zaldunaren balsak konposatu.

Hagitz programa egokia eta iradokitzailea da, musikarekin batera emozioen zurrumbiloa gogoratzea eragiten duena, gure bizitzak zeharo koloretzatuz. Goza ezazue.

Mercedes Albaina

ópera, Elektra, basada en un drama de Hugo von Hofmannsthal. Después de escandalizar al mundo musical, la escritura de Strauss se serenó –¿recordaría el compositor los consejos de su padre?– y tomó forma en la belleza ligera y radiante de El caballero de la Rosa, ópera en tres actos estrenada con un éxito histórico en la Königliches Opernhaus de Dresde el 26 de enero de 1911, bajo la batuta de Ernst von Schuch. La obra es un alegato musical del amor. Pero es también un recordatorio de la tenacidad con que el tiempo transcurre para todos nosotros. Probablemente sean estos los dos temas principales del libreto, pero también rondan por ahí pasiones tan humanas como la vanidad y la ambición y virtudes tan raras y valiosas como la renuncia y la generosidad. Todo ello tejido en una trama que enlaza, de manera convincente y admirable, la comedia de enredo con la reflexión trascendental. Desde luego esta conexión solo fue posible gracias al talento ilimitado del libretista: Hugo von Hofmannsthal. Este dramaturgo, poeta y ensayista vienés –“uno de los grandes prodigios de la perfección precoz”, según Stefan Zweig– había colaborado con Strauss un par de años antes en Elektra y lo haría después en Ariadne en Naxos, en La mujer sin sombra y en Arabella. El mismo Zweig confesaba admirado que no habían oído a ningún poeta contemporáneo “versos tan perfectos, de tan impecable plasticidad, tan impregnados de música” como los de Hofmannsthal. Seguramente estas valiosísimas cualidades fueron captadas también por Richard Strauss, que valoró tanto su colaboración con el escritor como para afirmar: “hemos nacido para trabajar juntos”.

Décadas más tarde –una primera versión es de 1934 y otra posterior de 1944– algunos de los vales que aparecen en la ópera fueron reunidos en una Suite, donde la sutileza rítmica, el colorido armónico, los timbres y el virtuosismo instrumental se ponen al servicio de una trama que basculó desde su origen entre la intriga social y la reivindicación del amor, en un contexto dieciochesco que no corresponde en absoluto ni al derroche de vales que inundan la partitura ni a una orquestación tan enriquecida. Pero la intención del libretista fue, en su momento, situar la acción en la Viena de Maria Teresa, ambientándola con una serie de vales que van de la indolencia voluptuosa a la apoteosis desenfrenada, dándose la paradoja –guiño irónico de artista– de que el vals vienés no existía entonces en el modo en que se hizo internacionalmente famoso a partir del siglo XIX. En todo caso, el placer que supone para nuestros oídos estar frente a la belleza disculpa cualquier anacronismo. Además, Richard Strauss homenajeó en la partitura no solo a Viena, sino también al músico austriaco que lleva su mismo apellido, reconociendo con ello la deuda que esta suite tenía con Johann Strauss, hijo, “el riente genio de Viena”, sin el cual, y según sus palabras, no podría haber compuesto los vales de El Caballero de la Rosa.

Un programa muy apropiado y sugerente para evocar con la música el torbellino de emociones que acompaña, coloreándolas, nuestras vidas. Disfruten.

Mercedes Albaina



## Sergei Dogadin, biolina / violín



Sergei Dogadin nazioarteko ospea erdietsi du biolin-lehiaketa ospetsuetan lorpen nabarmenak eskuratu ondorik. Eta hala da, Dogadin bere belaunaldiko biolin-jotzaile onenetakoa da. Bere garaipenen artean honako hauek daude: Moskuko XVI. Nazioarteko Txaikovski Lehiaketako Lehen Saria eta Urrezko Domina (2019), Hannoverreko Joseph Joachim Nazioarteko IX. Biolin Lehiaketako Lehen Saria (2015) eta Singapurreko Nazioarteko Biolin Lehiaketako Lehen Saria (2018).

2002an San Petersburgoko Areto Filarmonikoan Vasily Petrenkoren zuzendaritzapean debuta egin zuenetik, Dogadin mundu osoko eszenatoki ospetsuetan aritu da; adibidez, ondoko hauek dira eszenatoki horietako batzuk: Berlingo Filarmonikoa, Vienako Musikverein, Royal Concertgebouw Hall, Koloniako Filarmonikoa, Tokioko Suntory Hall, Madrilgo Auditorio Nazionalea, Buenos Airesko Colón Antzokia, Zuricheko Tonhalle, Stockholmeko Berwaldhallen, besteak beste.

Bakarleri gisa une aipagarrietan hainbat orkestrarekin hartutako konpromisoak nabarmendu dira. Ondoko hauek dira orkestrok: Londresko Orkestra Filarmonikoa, Royal Philharmonic Orchestra, Berlingo Sinfonikoa, Royal Concertgebouw, Municheko Filarmonikoa, NDR Radiophilharmonie, Budapesteko Sinfonikoa, Shanghaiko Sinfonikoa, Taiwango Orkestra Filarmonikoa, Singapurreko Sinfonikoa, Mendebaldeko Australiako Sinfonikoa, Mariinsky Antzokiko Orkestra, eta San Petersburgoko Orkestra Filarmonikoa, besteak beste.

Sergeik hainbat zuzendari nabarmenekin kolaboratu du. Hona hemen horietako batzuk: Yury Temirkanov, Valery Gergiev, Vladimir Ashkenazi, Thomas Sanderling, Vasily Petrenko, Vasily Sinaisky, Elisabeth Leonskaya, Vladimir Spivakov, Daniil Trifonov, Klaus Mäkelde, Denis Kozhuhin, Pierre Amoyal, Andreas Ottensamer, Andrew Manze, Shlomo Mintz, Anu Tali, Muhai Tang, Ken Takaseki, Saulius Sondeckis, Nicholas Carter, Michal Nesterowicz.

Sergei Dogadinen emanaldi ugariak mundu osoan zehar transmititu dira eta plataforma askoren bidez iritsi dira entzuleengana. Hona hemen plataforma horietako batzuk: Mezzo classic (Frantzia), Medici.tv, European Broadcasting Union (EBU), BR Klassik, WDR eta NDR Kultur (Alemania), YLE Radio (Finlandia), NHK (Japonia) eta BBC (Erresuma Batua).

Sergeik San Petersburgoko Musika Kontserbatorioan ikasi zuen Vladimir Ovcharek irakaslearekin, Koloniako Goi Mailako Musika Eskolan; Mihaela Martin irakaslearekin ere ikasi zuen, Grazeko Musika Unibertsitatean eta Vienako Musika eta Arte Unibertsitatean, Boris Kuschnir irakaslearekin.

2022tik, Dogadin irakaslea da Katarina Gurska Goi Mailako Zentroan (Madril, Espainia).

Sergei Dogadin Niccolo Paganini eta Johann Strauss biolinekin aritu izan da hainbat jaialditan.

Sergei Dogadin ha alcanzado fama internacional después de destacados logros en prestigiosas competiciones de violín, consolidándose como uno de los mejores violinistas de su generación. Entre sus triunfos se encuentran el Primer premio y la Medalla de Oro en el XVI Concurso Internacional Tchaikovsky en Moscú (2019), el Primer premio en el IX Concurso Internacional de Violín Joseph Joachim en Hannover (2015) y el Primer premio en el Concurso Internacional de Violín de Singapur (2018).

Desde su debut en 2002 en la Sala de la Filarmónica de San Petersburgo, bajo la dirección de Vasily Petrenko, Dogadin ha tocado en los escenarios prestigiosos en todo el mundo, como la Filarmónica de Berlín, la Musikverein de Viena, la Royal Concertgebouw Hall, la Filarmónica de Colonia, la Suntory Hall de Tokio, el Auditorio Nacional de Madrid, el Teatro Colón de Buenos Aires, la Tonhalle de Zúrich, la Berwaldhallen de Estocolmo, entre otros.

Destacados y esperados momentos como solista incluyen compromisos con orquestas como la Orquesta Filarmónica de Londres, Royal Philharmonic Orchestra, Sinfónica de Berlín, Royal Concertgebouw, Filarmónica de Múnich, la NDR Radiophilharmonie, Sinfónica de Budapest, Sinfónica de Shanghái, Filarmónica de Taiwán, Sinfónica de Singapur, Sinfónica de Australia Occidental, la Orquesta del Teatro Mariinsky, y la Filarmónica de San Petersburgo, entre otras.

Sergei ha colaborado con destacados directores como Yury Temirkanov, Valery Gergiev, Vladimir Ashkenazi, Thomas Sanderling, Vasily Petrenko, Vasily Sinaisky, Elisabeth Leonskaya, Vladimir Spivakov, Daniil Trifonov, Klaus Mäkelä, Denis Kozhuhin, Pierre Amoyal, Andreas Ottensamer, Andrew Manze, Shlomo Mintz, Anu Tali, Muhai Tang, Ken Takaseki, Saulius Sondeckis, Nicholas Carter, Michal Nesterowicz, entre muchos otros.

Las numerosas actuaciones de Sergei Dogadin han sido transmitidas en todo el mundo y han llegado a audiencias a través de plataformas como Mezzo classic (Francia), Medici.tv, European Broadcasting Union (EBU), BR Klassik, WDR y NDR Kultur (Alemania), YLE Radio (Finlandia), NHK (Japón) y BBC (Reino Unido).

Sergei estudió en el Conservatorio de Música de San Petersburgo con el Prof. Vladimir Ovcharek, en la Escuela Superior de Música de Colonia con la Prof. Mihaela Martin, en la Universidad de Música de Graz y en la Universidad de Música y Artes de Viena con el Prof. Boris Kuschnir.

Desde 2022, Dogadin es profesor en el Centro Superior Katarina Gurska (Madrid, España).

Sergei Dogadin ha tenido el honor de actuar durante varios festivales con los violines de Niccolo Paganini y Johann Strauss.



## Luis Toro, zuzendaria / director



Musika emozioak dira ", dio Luis Toro Arayak. Txiletar zuzendariak nazioartean atentzioa ematen jarraitzen du bere ibilbide bikainagatik. 23/24 denboraldiak Espainiako Orkestra Nazionalako Zuzendari Laguntzaile gisa berritza ekarri du, baita hainbat debutetan ere zenbait orkestrarekin, hala nola Txileko Opera Nazionalarekin, RTVEko Orkestra Sinfonikoarekin eta Dresdner Philharmonie orkestrarekin.

Toro Arayak publikoari emozioz beteriko interpretazioak transmititzen dizkio, musikariekin oso modu pertsonal eta harrigarrian konektatuz. Ikuspegi perfektionistarekin, interpretazio bakoitzean kolore finen paleta zabal bat eskaintzen du orkestra-soinuan. Luis Toro Arayak Espainiako Orkestra Nazionalako zuzendari laguntzaile gisa duen lankidetzaz berrituz ekingo dio denboraldi honi. 2023an, gainera, Los Angelesko Filarmonikoaren Dudamel Fellowshipeko kide izan zen, Gustavo Dudamel, Zubin Mehta eta Susanna Mälkki zuzendariarekin lankide jardunik, eta orkestraren buru, Stravinskyren 'Suzko Txoria'rekin aurkezpen goraiapatuak eginez.

Toro Arayak arrakasta handiz parte hartu du hainbat lehiaketatan, eta Zuzendari Gazteentzako Sariaren finalista izan da Herbert von Karajan 2021, non Salzburgoko Zinemaldiaren 100. edizioan Camerata Salzburgo zuzendu baitzuen. Horrezaz gainera, Liejako Nazioarteko Zuzendaritza Lehiaketan saritua izan da, eta Opera Award eta Audience Award sariak irabazi ditu Rotterdameko Nazioarteko Zuzendaritza Lehiaketan (ICCR). 2022/23 denboraldian, estreinaldi arrakastatsuak egin ziren orkestra hauekin: Espainiako Orkestra Nazionala, Los Angelesko Orkestra Filarmonikoa, Liègeko Orchestre Philharmonique Royal, Braunschweigeko Staatsorchester, Asturiasko Printzerriko Orkestra eta Valdiviako Ganbera Orkestra. Etorkizuneko konpromisoen artean Suitza, Alemania, Espainia, Belgika eta Latinoamerikako kontzertuak daude.

Txileko San Vicente de Tagua herrian jaio zen 1995ean, eta biolina ikasi zuen Txileko Unibertsitateko Arte Fakultatean eta Musika Eskola Modernoan, Alberto Dourthé Castrillónek. Ondoren, Txileko Orkestra Sinfoniko Nazionalako kide izan zen 2014tik 2017ra. 2015ean orkestra-zuzendaritzako ikasketak hasi zituen Jorge Rotter, Leonid Grin, Garrett Keast eta Helmuth Reichel Silva zuzendariarekin.

Eskola magistraletan, Bernard Haitink, Paavo Järvi, James Lowe eta Larry Rachleff zuzendariarekin lan egin ahal izan du. Luis Toro Arayak orkestra zuzendaritza ikasi zuen Weimarko Franz Liszt Musika Unibertsitatean Nicolás Pasquet irakaslearekin eta Zuricheko Arteen Unibertsitatean Johannes Schlaefli irakaslearekin.

"La música se trata de emociones", afirma Luis Toro Araya. El director chileno sigue llamando internacionalmente la atención por su brillante carrera. La temporada 23/24 marca su renovación como Director Asistente de la Orquesta Nacional de España y múltiples debuts con orquestas como la Ópera Nacional de Chile, la Orquesta Sinfónica de la RTVE y la Dresdner Philharmonie.

Toro Araya transmite al público interpretaciones llenas de emoción, conectando con los músicos de una manera muy personal y enérgica. Con un enfoque perfeccionista, aporta en cada interpretación una amplia paleta de refinados colores en el sonido orquestal. Luis Toro Araya inicia esta temporada renovando su colaboración como Director Asistente de la Orquesta Nacional de España. Durante el 2023 además fue parte del Dudamel Fellowship de la Filarmónica de Los Ángeles, colaborando con directores como Gustavo Dudamel, Zubin Mehta y Susanna Mälkki, y liderando la orquesta en aclamadas presentaciones con El Pájaro de Fuego, de Stravinsky.

Toro Araya ha participado exitosamente en distintos concursos, siendo finalista del Premio para Jóvenes Directores Herbert von Karajan 2021, donde dirigió la Camerata Salzburgo en la 100ª edición del Festival de Salzburgo. Ha sido premiado además en el Concurso Internacional de Dirección de Lieja y es ganador del Opera Award y del Audience Award en el Concurso Internacional de Dirección de Róterdam (ICCR). La temporada 2022/23 incluyó exitosos debuts con orquestas como la Orquesta Nacional de España, Filarmónica de Los Ángeles, Orchestre Philharmonique Royal de Liège, Staatsorchester de Braunschweig, Orquesta del Principado de Asturias y Orquesta de Cámara de Valdivia. Compromisos futuros incluyen conciertos en Suiza, Alemania, España, Bélgica y Latinoamérica.

Nacido en 1995 en San Vicente de Tagua Tagua, Chile, estudió violín en la Facultad de Artes de la Universidad de Chile y en la Escuela Moderna de Música con Alberto Dourthé Castrillón. Posteriormente formó parte de la Orquesta Sinfónica Nacional de Chile desde 2014 hasta 2017. En 2015 comenzó sus estudios de dirección orquestal con directores como Jorge Rotter, Leonid Grin, Garrett Keast y Helmuth Reichel Silva.

En clases magistrales, ha podido trabajar con directores como Bernard Haitink, Paavo Järvi, James Lowe y Larry Rachleff. Luis Toro Araya estudió dirección orquestal en la Universidad de Música Franz Liszt de Weimar con el Prof. Nicolás Pasquet y en la Universidad de las Artes de Zúrich con el Prof. Johannes Schlaefli.



Bilbao Orkestra  
Sinfonikoa

DENBORALDIA 24 TEMPORADA  
25

urriak 31 octubre  
azaroak 01 noviembre

# Hurrengo kontzertua Próximo concierto

## Eraztunen Jauna: Bi dorreak

### Proiekzio-kontzertua

H. Shore, Eraztunen Jauna: Bi dorreak



Palacio Euskalduna Jauregia



osteguna | jueves 19:30 h  
ostirala | viernes 19:30 h



Desde 23,50 €-tik aurrera  
Gaztea (<30):  
desde 11,70 €-tik aurrera

Taquilla Euskaldunako lehiatila  
[www.bilbaoorkestra.eus](http://www.bilbaoorkestra.eus)



Bizkaia  
Orkestra  
Sinfonikoa



Bilbao

